Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Bizkaiko Basalan, A.B.
Bizkaiko Basalan, A.B.

Basozaintza arloak Europako Batasunaren esparruan eroso moldatu ahal izateko adinako bizkortasuna agertu behar du. Horretarako, arlo honek Bizkaian dituen arazoak, guztiz bereziak, konponbidean jarri beharra dago.

Bizkaiak azaleraz 220.000 hektarea ditu gutxi gorabehera, eta horietatik basoak 156.000 hartzen ditu. Mendia izan da beti gure lurraldeko paisaia nagusia eta bertoko garapenerako funtsezko baliabideak eman dituena. Basozaintza gehi basozaintzari lotutako industria, multzo horren garrantzia kopuruen bitartez adieraz daiteke:

156.000 hektarea baso, 24.000 jaberen artean banatuta. Espezie hauek dira hedatuenak:

- Pinus radiata, 87.000 hektarea.
- Eucaliptus globulus eta Pinus pinaster, 14.000 hektarea.
- Douglas izeia, altzifrea, alertzea, haritz amerikarra, bertoko haritza, artea, gaztaina, lizarra, haltza etab., 25.000 hektarea.
- zelulosa enpresen, zerrategien eta aglomeratu enpresen industri jarduerak.

Basozaintzaren arloak, beraz, lehenengo begiradan bi alde desberdin erakusten dizkigu, ekoizpena eta artapena. Baina atal horiek ezin dira banaka hartu besterik gabe. Izan ere, bi kontzeptuok ezinbestekoak eta elkarren osagarriak direla onartu beharra dago, basoetako landaredia eta basoaren emankortasuna bete-betean garatuko badira.

Basoak, gainera, baldintzarik onenetan hazten denean bereziki, mendi-mazeletan behera azaletik jaisten den euri-urari eusten dio. Eragin horren ondorioz lurpeko ur-bilguneak bete egiten dira, ibai-arro osoan ur baliabideak gehitu eta higadura, berriz, gutxitu egiten da. Basoak oxigeno bolumen handia finkatzen du; CO_2 finkatzen eta zur bihurtzen ari da etengabe; prezipitazio horizontalak gehitzen ditu; mikroklimaren hobekuntza dakar, euria eragin

El sector forestal debe manifestar un dinamismo que le permita desenvolverse en el contexto de la Unión Europea, para lo cual es preciso solucionar la problemática tan peculiar que afecta en este campo a Bizkaia.

Bizkaia tiene aproximadamente 220.000 Has. de superficie, de las que 156.000 son de dominio forestal. El monte ha constituido el paisaje más sobresaliente de nuestro Territorio y ha aportado elementos principales para su desarrollo, presentando un complejo “bosque-industria derivada” que tiene como destacadas las siguientes cifras:

156.000 Has. de montes repartidas entre 24.000 propietarios, siendo las especies principales:

- el Pinus Radiata, que ocupa 87.000 Has.
- el Eucaliptus globulus y el Pinus pinaster, que ocupan 14.000 Has.
- el Abeto douglas, Cipres, Alerce, Roble americano, Roble del país, Encina, Castaño, Fresno, Aliso, etc., con una ocupación de 25.000 Has.
- actividad industrial a través de empresas celulósicas, aserraderas y de aglomerados.

El sector Forestal representa, por tanto, aspectos productivos y de conservación a primera vista diferenciados, pero que sin embargo, no pueden ser tratados de manera individualizada, ya que ambos conceptos son indispensables y complementarios si se desea tener unos bosques en su mayor y mejor estado de vegetación y potenciabilidad.

El bosque produce, además, cuando vegeta en condiciones óptimas, de manera especial, una disminución muy apreciable en la escorrentía superficial con la influencia en la recarga de acuíferos, la disponibilidad de agua en la cuenca y la disminución de la erosión; un volumen importante de oxígeno; una fijación de CO2 en forma permanente como madera; un incremento de las precipitaciones horizontales; una mejora del

eta tenperaturak ematzen baititu; haizeen indarra moteltzen du; zaratak zurgatzen ditu; atmosfera garbitzen du kutsagaiak iragaziz, batez ere, esekiduran dauden solidoak eta, bestalde, lanpostuak sortarazten ditu. Basoaren eragin mesedegarri horiez gainera azpimarratzekoak dira, halaber, gizartearentzat dakartzan onurak.

Basozaintza arloaren beharrizan nagusiak honakoak dira:

- Gure basoen ekoizgarritasuna gehitzea, hobekuntza genetikoaren eta lugintza eta basozaintzako tratamendu egokien bitartez.
- Suteek erretako basoak birsortzea.
- Jabetzaren egitura hobetzea, baso-jabeen elkarteak sustatuz.
- Jabetzaren egitura teknikaren ikuspegitik antolatzea, kudeaketa planak landuz eta gertatuz.
- Gure basoetako zuren kalitatea hobetzea, basoa lantzeko tratamendu egokiak direla bide.
- Basozaintzatik datozen ekoizkinen balio erantsia gehitzea, beroriek industrian erabiltzeko modu berriak bilatuz.
- Baso-lurretan zuhaiztien azalera gehitzea, bertan behera utzitako basoetan edo sarbiderik ez dutenetan zuhaitzak landatuz.
- Azpiegitura hobetzea, basoko bideak eginez eta lehendik daudenak konponduz.

Basozaintza arloari bilakaera egokia ziurtatuko dioten eragileetariko bat BASALAN, S.A.ren jarduera da. Izan ere, Foru Aldundiak eginkizun garrantzitsua bete dezake eta bete behar du arlo honetan, basozaintzako lanbide elkarteak lankide dituela. Aldundiak dauka basoen, baso

microclima tanto en los aspectos de lluvia como de temperaturas; un freno a los efectos negativos de los vientos; una pantalla contra el ruido; un filtro contra la contaminación atmosférica, especialmente en lo referido a los sólidos en suspensión, asi como efectos multiplicadores en empleo, entre otros aspectos destacables como beneficios sociales.

Las principales necesidades del sector, son las siguientes:

- Aumento de la productividad en nuestros bosques por medio de la mejora genética y de la adecuación de los tratamientos culturales y selvícolas.
- Regeneración de las superficies forestales afectadas por los incendios.
- Mejora de la estructura de la propiedad mediante la agrupación de propietarios forestalistas.
- Tecnificación de la estructura de la propiedad por medio de la elaboración y puesta a punto de planes de gestión.
- Aumento de la calidad de las maderas de nuestros bosques por la adecuación de los tratamientos culturales.
- Aumento del valor añadido a los productos derivados del sector para la búsqueda de nuevas aplicaciones industriales.
- Aumento de la superficie forestal arbolada por la repoblación de montes abandonados o inaccesibles.
- Mejora de la infraestructura por la reparación y construcción de caminos forestales.

La actuación de BASALAN, S.A. se considera uno de los parámetros determinantes de la adecuada evolución del sector forestal, habida cuenta del importante papel que la Diputación Foral puede y debe desempeñar en colaboración con las Asociaciones Profesionales del Sector y en base a

Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Bizkaiko Basalan, A.B.
Bizkaiko Basalan, A.B.

aprobetxamenduaren eta Herri Administrazioak eskaintzen dituen baso zerbitzuen gaineko eskumen esklusiboa eta, horren ondorioz, baita horiekiko betebeharrak ere.

BASALAN, S.A.k ondorengo jarduerak hartu ditu helburutzat bere estatutuetan:

1. Basoetako lan guztien plana egin, beraien proiektua egin eta lanok burutzea, bai eta izadia artatzea; horren helburua, berriz, basoaren ekoizgarritasuna indartzea da; eta, horretarako, basoen hobekuntza genetikoaren lanak egingo dira, baso mintegiak kudeatuko dira, eta lugintza eta oihangintzako tratamenduak egokituko dira, bai eta baso aprobetxamenduak egin ere, plan tekniko egokiak oinarri harturik, eta bertan behera utzitako basoak edota iristeko ezineko modukoak berriro landatuko dira; horrezaz gainera, baso azpiegitura egingo da, basobideak eraiki eta konponduaz; horrezaz gainera, beste lan batzuk egingo dira, eta basalandare eta basanimaliak babesteko jarduerak egingo dira.

2. Xede horietarako zuhaitzak hartuko dituzten basoak kudeatu eta antolatzeko planak idatzi eta burutuko dira. Jagotza egingo da, baso-suteak gertatu aurretik beraien aurka neurriak hartzeko, eta laguntza ematea suak amatatzen.

3. Arloaren teknika, gizarte eta ekoizpenaren aldeko baldintzak hobetzea; horretarako, baso azalerak elkartzera jotzen duten ekintzak egingo dira, baso aprobetxamenduak modu errentagarrian egin ahal izateko; azpiegitura egokiak lortzea; baso ustiategiaren izaria plangintza zuzenaren araberakoa izan dadin erdiestea; zuraren kalitatea handitzea, bai eta arloak eratortzen dituen ekoizkinen balio erantsia ematea, modu horretara, erabilera berriak bilatu ahal izateko industrian; jarduerak egingo dira, arloaren desorekak zuzentzeko, eta basozaintzara biltzen diren alderdiak zabalduko dira.

la competencia exclusiva y consecuentes obligaciones en materia de montes, aprovechamientos y servicios forestales de esta Administración Pública.

BASALAN, S.A. estatutariamente, tiene por objeto social el desarrollo de las actividades siguientes:

1. Planificación, proyecto y ejecución de toda clase de trabajos forestales y de Conservación de la Naturaleza con el fin de potenciar la productividad del bosque mediante trabajos de mejora genética forestal, la gestión de viveros forestales y adecuación de tratamientos culturales y selvícolas, la realización de aprovechamientos forestales en base a planes técnicos adecuados, la repoblación de montes abandonados o inaccesibles, la infraestructura forestal mediante la construcción y reparación de caminos forestales y otras obras, y la realización de actividades de protección de la flora y fauna silvestres.

2. Redacción y ejecución de Planes de Gestión y Planes de Ordenación de montes arbolados a estos fines. Vigilancia en prevención de incendios forestales y colaboración en la extinción de los mismos.

3. Mejora de las condiciones técnicas, sociales y productivas del sector mediante la realización de acciones tendentes a la agrupación de superficies forestales que permita llevar a cabo unos aprovechamientos forestales en forma rentable, la consecución de infraestructuras adecuadas, el alcance de una dimensión en la explotación forestal acorde con una planificación correcta, el aumento de la calidad de la madera y del valor añadido a los productos derivados del sector que permitan la búsqueda de nuevas aplicaciones industriales, la ejecución de actividades correctoras de los desequilibrios del sector y la divulgación de los diversos aspectos que concurren en el sector forestal.

4. Profesionalak prestatu eta hobetzeko jarduerak planifikatu, ezarri eta garatuko dira, basoetako lanetan bereizteko, bai eta izadiaren artapenean, eta lan horietan guztietan osasun eta segurtasun baldintzen hobekuntzan.

5. Atsedenleku eta zerbitzuguneak sortu eta zaintzea, edota landagunea, parkeak eta antzekoak gozatzea; horrezaz gainera, esku hartuko da basoek eta basoaldeek jostetarako duten alderdian.

6. Aholkularitza, azterlan, txosten, ikerketa, prestakuntza eta koordinazioa burutuko dira, aurreko idatz-zatietan adierazi diren zerbitzuak direnaz bezainbatean, hala Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera jardunaz, nola beste herri erakunde batzuekin, eta erakunde pribatu eta norbanakoekin batera ibiliaz.

Xede hori sozietateak berak egin ahal izango du, bestela zeharka egin dezake, akzioen titulartasunaren bidez edo xede berdina edo antzekoa duten sozietateen partaidetzak izanez..

Jarduerak

BASALAN, S.A.k asmoan dituen jarduketa gehienak lau atal nagusi hauetariko batean sartzen dira:

- Basoak.
- Ibaiak.
- Atsedenlekuak.
- Beste lan batzuk.

- Basoak

Baso-suteak direla eta, BASALAN, S.A.k hainbat fase dituen lan plana burutu behar du, Nekazaritza Saileko Baso Zerbitzuak beren beregi jarri dituen gidalerroei jarraituz eta, betiere, suteen ondorioak

4. Planificación, establecimiento y desarrollo de actividades de formación y perfeccionamiento de profesionales especializados en trabajos forestales y de conservación de la naturaleza y de mejora de las condiciones de higiene y seguridad en dichos trabajos.

5. Creación, adecuación, mantenimiento de áreas recreativas y lugares de servicio y/o disfrute del medio natural, parques y similares e intervención en la faceta recreativa que poseen los montes y áreas forestales.

6. El asesoramiento, estudio, informe, investigación, formación y coordinación en relación con las actividades y servicios señalados en los apartados anteriores, tanto a la Diputación Foral de Bizkaia y otras Entidades Públicas como Privadas y Particulares.

Este objeto podrá realizarse por la Sociedad, ya directamente, ya indirectamente, mediante la titularidad de acciones o participaciones en Sociedades con objeto idéntico o análogo.

Actividades

Dentro del marco de actividades previsto, las actuaciones de BASALAN, S.A. se encuadran principalmente dentro de estos cuatro grandes grupos.

- Montes.
- Ríos.
- Areas Recreativas.
- Otros trabajos.

- Montes

Como consecuencia de los incendios forestales y siguiendo las pautas marcadas al respecto por el Servicio de Montes del Departamento de Agricultura, en colaboración asimismo con los

jasan dituzten udalerriekin eta baso-jabeekin elkarlanean. Plan horren helburua suak basoetan eragindako hondamenak konpontzea da, eta horretarako lan hauek egin behar dira:

- Baso-pistak eta basoetarako sarbideak gertatu eta atontzea.
- Hondatutako egurra moztu eta ateratzea.
- Egur biltegiak sortzea.
- Lurzorua garbitu eta lehengoratzeko lanak.
- Basoberritzea, bertoko espezieak lehenesten direla.
- Markatze eta meazketa lanak.
- Mintegia (Garmo) kudeatzea, baso landareak ekoizteko eta haien hobekuntza genetikoa lortzeko.
- Garmoko mintegian gerizpeak instalatzea baso landareak babestu eta sendotzeko.

- Ibaiak

Uretako habitat edo biziguak lehengoratu eta hobetzeko helburuarekin ibai-erreketan egin beharreko lanak ondorengoak dira: ibaiertzak atondu, babestu eta birbasotzea; eta aldian-aldian karramarroen eta beste espezie batzuen populazioak neurtzeko laginak biltzea.

- Atsedenlekuak

Gero eta gehiago gure txoko eta inguru naturaletara jotzen dugu aisialdia patxadaz emateko. BASALAN, S.A.k, gizarte eta kultur eskari hori asetzeko asmoz, lankidetza harreman estuak egin ditu Nekazaritza, Ingurugiro eta Herri Lan sailekin. Horrela, josteta eta atsedenerako gune horien mantenimendu osoaz arduratzen da eta, bide batez, berorien ingurune ekologikoa artatzen eta hobetzen laguntzen du.

Municipios y particulares afectados, BASALAN,S.A. desarrolla un plan de trabajo en sus variadas fases, conducente a subsanar la acción devastadora del fuego, mediante la ejecución de las tareas siguientes:

- Preparación y acondicionamiento de pistas y accesos.
- Tala y saca de la madera dañada.
- Creación de parques de almacenamiento de madera.
- Labores de limpieza y recuperación del suelo.
- Repoblamiento, prioritariamente, con especies autóctonas.
- Labores de señalamiento y entresaca.
- Gestión de vivero (El Garmo) para la producción y mejora genética de planta forestal.
- Instalación de umbráculos en El Garmo, para protección y fortalecimiento de planta forestal.

- Ríos

Los trabajos que se desarrollan en este medio tendentes a la recuperación y mejoramiento de hábitats acuáticos, se corresponden con el acondicionamiento, protección y repoblamiento en las márgenes de rios, así como con muestreos periódicos sobre la población de cangrejos y otras especies.

- Areas Recreativas

Existe una demanda social y cultural creciente hacia el disfrute del tiempo de ocio en nuestros parajes naturales, para lo cual, BASALAN, S.A. colabora muy estrechamente con los Departamentos de Agricultura, Medio Ambiente y Obras Públicas, responsabilizándose del mantenimiento integral de estas zonas de expansión y recreo, contribuyendo al mismo tiempo a mantener y mejorar su entorno ecológico.

Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Bizkaiko Basalan, A.B.
Bizkaiko Basalan, A.B.

BASALAN, S.A.ren ardurapean dago herri titulartasuneko zenbait parke eta finkaren mantenimendua eta bertako paisaiaren antolamendua. Besteak beste, ARTAZAko jauregia/ingurua aipa daiteke.

- Beste lan batzuk.

Multzo honetan sartzen dira, halaber, BASALAN, S.A.k noizbehinka burutu behar izaten dituen jarduketa bakanak, esate baterako:

- Urkiola eta Gorbeako Parke Naturalak zaindu eta bertako paisajea egokitzeko lanak, atsedenlekuak mantendu eta garbitzea, zuhaitzak landatu, itxiturak jartzea etab.
- Hazien bilketa eta aukeraketa.
- Langileentzako prestakuntza eta eginera ikastaroak antolatzea arlo hauek lantzeko: basozaintza, birbasoketa eta baso-lanen mekanizazioa, baso aprobetxamenduak, laneko segurtasuna eta osasuna etab.
- Basoetan zedarriak eta mugak jartzea.
- Larredien tratamendu eta artapena.
- Baso-suteak sumatu, aurreneurriak jarri eta suteak itzaltzeko plana.
- Zuhaitz Eguna eta Erreka Eguna antolatzen laguntzea.

Asmoak

Gure jarduerak arestian azaldutako ildoetatik joango dira 2011. urterako ekitaldian ere. Seguru asko atsedenlekuen mantenimenduaren inguruko jarduerak bereziki indartuko dira, beraiek ugaritu eta txukuntzeko asmoa baitago.

Basozaintzari dagokionez, azpimarratu beharra dago aurrerantzean ere eskura edukiko dugula

BASALAN, S.A. tiene asimismo encomendado el mantenimiento y ordenación paisajística de determinados parques y fincas de titularidad pública, como el palacio/área de ARTAZA, etc.

- Otros trabajos.

Se encuadran en este grupo aquellas realizaciones encomendadas a BASALAN, S.A. caracterizadas por una ejecución más esporádica y puntual, como:

- Tareas de vigilancia y adecuación paisajística en los Parques Naturales de Urkiola y Gorbea con el mantenimiento y limpieza de sus espacios de ocio, plantaciones arbóreas y cerramientos, etc.
- Recogida y selección de semillas.
- Cursos de formación y prácticas a trabajadores, en materia de silvicultura, repoblación y mecanización forestal, aprovechamientos forestales, seguridad e higiene en el trabajo, etc.
- Amojonamiento y delimitación de montes.
- Tratamiento y conservación de pastizales.
- Plan de detección, prevención y extinción de incendios forestales.
- Contribución al desarrollo del “Zuhaitz Eguna” y del “Erreka Eguna”.

Perspectivas

Para el próximo ejercicio del año 2011, nuestras actividades continuarán dentro de las líneas expuestas, con un previsible potenciamiento hacia aquellas que conforman el mantenimiento de las Areas Recreativas, al estimarse un aumento y mejora de éstas.

En lo que atañe al sector forestal y siempre que su utilización resulte aconsejable, señalar que

Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Bizkaiko Basalan, A.B.
Bizkaiko Basalan, A.B.

airezko kablearen teknologia aurreratua, dagoeneko behar bezala hainbat saiakuntzatan egiaztaturik dagoena. BASALAN, S.A.k autonomia erkidegora ekarri duen teknologia hori erabiliz gero, moztutako egurra eskuztatu eta ateratzeko lanak seguruagoak dira, ekoizgarritasun handikoak eta ingurunean eragin arinagoa dute, batez ere, basoa sarbide zailekoa edo malkartsua denean. Horrenbestez, ez dago baso-pistarik egin beharrik, ezta, horren ondorioz, euri-urek lurra higatzeko arriskurik ere, eta gainera ez zaie kalterik egiten zutik dirauten zuhaitzei.

Ibilgetuaren erosketak aurreikusten dira, gehienez 220.00 euroko balioaz eta era honetan banatuak:

- Makinaria: 133.000 euro.
- Ekipo informatikoak: 12.000 euro.
- Garraio-elementuak: 75.000 euro.

seguimos disponiendo de la avanzada tecnología del cable aéreo, debidamente contrastada y experimentada, y que introducida por BASALAN, S.A. en nuestra Comunidad Autónoma, permite la manipulación y saca de la madera talada con un alto índice de seguridad y productividad y con el menor efecto impactante para el medio, especialmente en los casos de difícil acceso o fuertes pendientes, evitando la apertura de pistas con el consiguiente peligro de escorrentía y erosión del suelo, y a la vez, que se produzcan daños al arbolado en pie.

Se prevén unas adquisiciones de inmovilizado por valor máximo de 220.000 euros, distribuidos como sigue:

- Maquinaria por importe de 133.000 euros.
- Equipos informáticos por importe de 12.000 euros.
- Elementos de transporte por importe de 75.000 euros